



Camina conmigo.
Cabezafuego

Folk records / Happy place records, 2014.

Ausardia eta musika ezagutza

INIGO GARCES *Cabezafuego*-ri buruz liburu bat idatzi daiteke eta baita comic erraldoi bat ere. Iruindarra ipurterre hutsa da, nekaezina eta sortzaile gisa ez dauka parekorik, musika sortzen, hitz errepikaezinak idazten zein aurrera ateratzen dituen proiektuei irudimena eta umorea borborka gehitzen.

Oso gazte hasi zen hardcoretik haragoko bidea egin zuen Half Foot Outside taldean. Handik gutxira, ia muturrera, Los Bichos iparra zuen Jugos Lixivados taldean zenbait instrumentu apurtuko zituen, nahita ziur. 90eko hamarkada erdian, baina, goitizena jarri zion orrazkera ezagun bihurtu zen Euskal Herriko rockzaleen artean, Mermaid taldearekin stonerrari eta psikodeliari (eta gerora estilo eta eskola zaharreko rock gogorrari) bidea zabaltzen. Taldea utzi zutenean gutako asko umezurtz utzi gintuzten.

Gerora, pop-rockerantz egindako hurbilketa ezohikoak etorri ziren: Royal Canal proiektu eder zein ausarta eta Black Lagun bizarroagoa. Eta ia aldi berean plazaz plaza aritu zen Bizardunak zein Atom Rhumba talde entzutetsuetan; batzuetan serio eta bestetan etengabeko trufa barrenean, egoeraren eta taldearen arabera.

Hori guztia gutxi balitz, orain dela pare bat urte bakarka emanaldiak egiten hasi zen gitarra alboan, Cabezafuego izenpean. Grazia bazuen, ikaragarria, baina kantuak biluziegiak ziren niretzat. Baina orain gutxi, biolin-jotzaile eta bateria batek lagunduta zuzenean berriro deskubritu dut, eta abestiei gorputz handiagoa gehitu die.

Orain hirukote gisa aritzen bada ere, honako diskoa grabatzeko hurbileko lagun asko batu ditugu inguruan, eta ez edonolakoak: Joseba Irazoki, Felix Bluff, Nacho Beltran... Eta aitortu behar dut emaitzak onerako harritu nauela. Egia da aspaldian Cabezafuegorekiko aurreiritziak alde batera utzi behar direla, eta ildo berean onartu behar da azalean ematen duen etorri handiko mutila baino askoz harago doala, alegia kantuak sortzerakoan oso ausarta dela.

Lan honek badu folkik, rockik eta bestelakorik, baina pop-rocka da nagusi. Modu oso gardenean batzuetan, baina horren guztiaren azpian irudimen eta ñabardura handiekin. *Resaca de un bobemio* eta *Camina conmigo*, esaterako, *hit*-ak dira, hitzek kantatzen dituzten egiengatik, eta batez ere, melodia itsaskorren erruz. Nostalgia kutsua darie kantuei eta baita gustu zein musika ezagutza erabatekoa. Bada Josetxo Ezponda inspirazio duen Bichos-en gisako *zingira* kutsuko kanturik, baina psikodelia finena eta surfaren dotorezia ere erraz antzematen dira. Eta esango nuke Arthur Lee *Love* ere estudioan ezkatututa egon zela grabazioko asteburuan. Baina diskoak perla asko ditu, norberak aurkitu beharrekoak, eta ez ditut guztiak azalera ekarriko. Nahiz eta, lehen aipatu bezala, sartu aurretik aurreiritziak kanpoan utzi behar diren.

A, eta biniloen karpetak Cabezafuegok berak eskuz eginak dira, barruko kantuaren pareko mimoz eginak. ■

Iker Barandiaran



HOTELA IRIARTE JAUREGIA ****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com